

# B

BARREN

*ESKERRIK ASKO, GOTZON*



# Gotzon Garate akorduan

Herri-omenaldia urriaren 8an

# lanbide

Euskal Enplegu Zerbitzua  
Servicio Vasco de Empleo

## Lanbide Elgoibar

Gabriel Krutzelaegi, 8  
20870 Elgoibar  
Tel.: 943 744 425  
Faxa: 943 740 618  
e-mail: elgoibar@lanbide.net  
[www.lanbide.net](http://www.lanbide.net)

*Lan bidea  
El camino  
hacia el empleo*



Lanbide, Eusko Jaurlaritzak eskueran jartzen dizun Euskal Enplegu Zerbitzua da eta lana bilatzeko prozesuan laguntza eta orientabidea eskaintzen dizu.

Beren lehen enplegua bilatzen ari direnei, langabezian daudenei, lan-merkatura itzuli nahi dutenei eta lanean arituta ere, enpleguz aldatu nahi dutenei zuzentzen gara eta baita langileak behar dituzten enpresei ere.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ERAGINDAKO  
GABRIEL KRUTZELAEGI

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y SERVICIOS SOCIALES

EUROFANDE ELKARTEA  
UNION EUROPEA



Europako Funderu Soziala  
Fonds Social Europe

# ZEZEN-BIDE



## AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!



## ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era  
15:00etatik-20:30era

## LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kreditutxarekin ordaintzeko erraztasunak

## Buruan zapia, eskuan ezpata, gora Ane pirata!

Kaixo, Ane, gure Ane Pirata maite-maitea!

Ospitaleko gela batean ezagutu zintugun orain dela urte batzuk. Gaixorik zeuden haurrak eta senideak alaitzera joan ginen gu ospitalera. Eta han zeuden zu, kirofanora sartzeko zain, ama ondoan, irribarre handi bat ezpainetan. Pailazoarena egiteko asmotan sartu ginen zure gelan, baina zuk egin zenigun pailazoarena. Abentura zirraragarri bat hasi zen hantxe, elkarrekin bizi izan genuena: bat-batean, ospitaleko ohea itsasontzi bihurtu zenuen, eta zure tripulazioko kide egin gintuzun denok: pailazoak, dantzariak, musikariak, kantariak, marrazkilariak, idazleak... denok pirata! Euskal Herri osoa zeharkatu genuen zure barku piratan, irri, kantu eta dantza.

Gauza asko ikasi dugu zurekin. Piraten lezioak... Ikasi dugu eguneroko gauza txikiak inportanteak direla eta altxor bilakatu behar ditugula. Ikasi dugu, gaixorik egonagatik ere, pozik bizi litekeela. Ikasi dugu, bizitzan gauza txar bat etortzen zaigunean, gauza onei erreparatu behar diegula, tristurak eta pozak goxoagoak direla elkarrekin partekatzen ditugunean.

Eta batez ere ikasi dugu, zuri ikasi dizugu, Ane, bizitza abentura handi bat dela, eta bizi ditugun abenturak ospatu egin behar direla, betetzen goazen urteak baino inportanteagok direlako.

Orain, ordea, kapitainik gabe geratu gara, Ane..., zu gabe, gure Ane Piratarik gabe, eta hor goaz noraezean, triste, negar malkotan, bizitzari koloreak ikusi ezinik.

.....  
**“Batez ere, zugandik ikasi dugu, Ane, bizitza abentura handia dela, bizi ditugun abenturak ospatu behar direla”**

Baina ondo dakigu laster zure irribarreak berriro gidatuko gaituela, zure haizeak puztuko dituela gure bihotzak. Zurekin eraman gaituzu, Ane, eta zu ere gure baitan geratu zara betiko. Irribarre egiten dugun bakoitzean hor egongo zara zu. Eta triste gaudenean ere hor egongo zara, eta akaso behin baino gehiagotan gogorarazi beharko diguzu zure lezioa, Ane Pirataren lezioa: “Unblenble! Argitu kopeta hori, beti dago arrazoi bat irribarre egiteko!”

Eskerrik asko guztiagatik, Ane.

Besarkada goxo bat zuri, zure familia zoragarriari, Aspanovas elkarteari eta zure lagun kuttunei, pailazo taldea osatzen dugun sudurgorri guzti-guztion partetik.

Buruan zapia, eskuan ezpata, gora Ane Pirata!

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituz gurekin harremanetan:  
 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**BETE DUZU ALBISTEAK  
 E-POSTAZ  
 JASOTZEKO HARPIDETZA?**

**EGUNERO  
 BIZPAHIRU  
 ALBISTE JASOKO  
 DITUZU!**

**www.elgoiBARREN.net**

**Egin  
 klik  
 eta  
 ikusiko  
 duzu**

# HOGEI URTE

## HERRITARREN ZERBITZURA



Hogei urte bete ditu Elgoibarko Gurutze Gorriak. Hogei urte, behar handienekoei laguntzen. Hasierako garai haietatik asko aldatu dira gauzak, baina sorrerako filosofiari eusten dio irabazi asmorik gabeko erakunde honen. Izan ere, boluntarioak dira, oraindik ere, erakundearen enborra. Joseba Osoro, Jon Mekolalde eta Txomin Zabaletak osatzen dute, besteak beste, Elgoibarko Gurutze Gorriko zuzendaritza taldea. Ardura karguak betetzen dituzte, baina boluntarioak dira hirurak. Besteei laguntzeak ematen dien satisfakzioak lotu ditu Gurutze Gorriara.

Ainara Argoitia

**G**urutze Gorriak 150 urte bete ditu aurten, baina Elgoibarren 1989an sortu zen. Beste garai batzuk ziren haiek. Gipuzkoako Gurutze Gorriak lagatako “anbulantzia zahar” batekin hasi ziren lehen sorospen zerbitzuak ematen Elgoibarren.

Garai hartan Ermuan ari zen Txomin Zabaleta, boluntario gisa. Orduan ere euren astialdia besteei laguntzen emateko prest zeuden herritarrek ziren erakundearen ardatza, baina tartean militarrek ere izaten ziren, soldaduak. Lanean berdez jantzita gogoratzen ditu Zabaletak. Gero etorri ziren kontzientzia objektoreak, soldadutzaren ordezkotza Gurutze Gorrian egitea erabaki zuten gazteak. Horrek zeresan handia eman zuen erakunde barruan zein kanpoan. “Armadarekin elkarlanean aritzea leporatu zitzaion Gurutze Gorriari”, gogoratu du Zabaletak. Gaur egun, boluntarioek eta 24 orduko zerbitzua bermatzeko kontratatutako hainbat langilek osatzen dute Elgoibarko Gurutze Gorria.

Laguntzeko prest dagoen edonork du, baina, talde horretako kide izateko aukera. “Edozeinek balio du. Ateak zabalik ditugu”, na-

barmendu du Joseba Osorok. Izan ere, lan asko dago egiteko Gurutze Gorriaren barruan. “Jende askok pentsatzen duenaren kontra, hau ez da ambulancia bat bakarrik”, gehitu du Zabaletak. Sorospen jardueraz gain, gizarte laguntzarako zerbitzu zabala eskaintzen du Gurutze Gorriak, beti ere, baztertuta gelditzeko arriskuan dauden giza-taldeei arreta berezia jarriz. Jende asko dago-eta laguntasun beharrez, “gero eta gehiago”. Etxean bakarrik bizi diren adineko pertsona ugari dago, ezinduek, menpekotasunen bat dutenak, euren kabuz ibiltzeko gai ez direnak... “Jende asko bizi da etxean harrapatuta. Elgoibarren, esaterako, 20 urte egin zituen adineko emakume ezindu batek etxean, senideek kanpora atera ezin zutelako. Gurutze Gorriari esker, orain beste pertsona bat da”, dio Osorok horren harira. Horrekin lotuta, *Portal solidarioa* kanpaina egin zuten iaz. Portal bereko bizilagunek elkarri laguntzeko. “Norberak daki ondoen bere bizilagunak zer egoeretan bizi diren”.

Krisiak, gainera, nabarmen gizendu du laguntza premian daudenen zerrenda. “Gabonetako jostailuen kanpainaren barruan, esaterako, hamar familia zeuden orain bi urte, eta iaz, berriz, 30

**“Jende askok pentsatzen duenaren kontra, Gurutze Gorria ez da ambulancia bakarrik”**



### “PUNTA-PUNTAKO” ANBULANTZIA BERRIA

Elgoibarko Gurutze Gorriak ambulanzia berria eskuratu berri du. Gipuzkoan, bost ambulanzia medikalizatu daude guztira, eta Elgoibarkoaren antzera oinarritzko bizi euskarria eskaintzeko prestatutako hemeretzi ambulanzia basiko. Errepide sarearen arabera zehazten dute ambulantziak non izan behar diren, eta Osakidetzako mediku batek erabakitzen du larrialdietarako telefonora (112) deitu duenari zein motatako ambulanzia bidali. Edozelan ere, berezia da Elgoibarko ambulanzia berria. Izan ere, urteetako eskarmentuak erakutsitako beharren arabera egokitu dute. Ambulanzia prestatzeko orduan, bi irizpide hartu dituzte kontuan: batetik, gaixoaren erotsasuna, eta bestetik, Gurutze Gorrikoen lana errazteko modua.

Ambulanzian gutxienez bi lagunek lan egiten dute, baina batzuetan hirugarren bat ere joaten da, ikastaro guztiak egin ostean praktikan dabilena. “Hirurak ondo baino hobeto prestatutakoak”, Elgoibarko Gurutze Gorriak Debabarrena osoa eta Zumaia arteko zatia hartzen ditu, eta baita Lea-Artibai eskualdea ere.

inguru. Era berean, elikagaien programan ere jende gehiago dago”. Europako Batasunetik iristen da elikagaien programako laguntza. Produktu soberakinak bidaltzen dituzte, eta horiek diru sarrera handirik gabeko familien artean banatzen ditu Gurutze Gorriak, beti ere Udalak emandako informazioan oinarrituta.

### Jaietan ere bai

Ahulenen ondoan egin du bidea Elgoibarko Gurutze Gorriak, baina herrian antolatzen diren hainbat ekintzetan ere topa daitezke bertako boluntarioak. Orain gutxira arte goitiberak ere antolatu izan dituzte, eta sokamuturrean eta bestelako ekitaldietan ere izaten dira. Herriko hainbat taldek eskatu izan die laguntza halakoetan, eta ahal izan duten neurrian erantzun dute. Osasun zerbitzu hori ematearen truke kobratu egiten dute. “Jende askok ez du ulertzen, baina ezinbestekoa zaigu. Eusko Jaurlaritzaren laguntzak ozta-ozta ematen digu larrialdietarako ambulanzia, haren mantenimendu gastuak, ekipamendua eta kontratatutako langileei ordaintzeko. Gainerako guztia geuk finantzatzeko”, zehaztu du Zabaletak.

Esparru askotan lan egiten du Elgoibarko Gurutze Gorriak, baina ez nahi bestetan. “Egingo genituen gauza asko ezin ditugu egin jendea falta dugulako”. Gaur egun, Elgoibarren ari den bo-

luntario gazteenak 17 urte ditu, eta, zaharrenak 58, eta denak dira beharrezko. Gurutze Gorriara jotzen duen edozeini galdetegi bat pasatzen diote, bere burua non lan egiteko ikusten duen jakitzeko. Gero denen artean zehazten dituzte egitekoak. Boluntariorik gabe, baina, proiektu asko daude hari batean.

Prebentzioaren alorrean jarri dute indarra aspaldian. “Urgentzien kultura” sustatu nahi dute herrian, eta hala, aparteko garrantzia ematen diote prestakuntzari. “Larrialdi bat izaten denean, ambulanziaz hamar minutu behar izaten ditu iristeko, eta denbora horretan bizi asko salba daitezke, sorospenari buruzko oinarritzko ezagutza bat izanez gero”, adierazi du Osorok. Hala, ikastaroak ere antolatzen dituzte, herritarrak prestatzeko. Iaz, maiatzean egin zen ikastaro horietako bat, eta orduan ez zuten kanpainarik egin beharrik izan, ikastaroa iragarri orduko osatu zutelako taldea. Urtea amaitu aurretik beste bat antolatzeko asmoa ere badute, baina oraindik ez dute datarik zehaztu. Bestalde, kartara prestatutako ikastaroak ere antolatzen dituzte. “Ez nahi beste”, hala ere. “Elkarte gastronomikoetan-eta, halako ikastaro batekin larrialdi asko saihestu daitezke. Jo dezagun sukaldean lanean ari dela erre egiten dela bazkide bat, edo eta eztarrian tratatzen zaiola jandako zerbait beste bati. Gu iritsi aurreko hamar minutu horietan asko lagundu dakieke”, dio Zabaletak.

# ERROSARIO KALEKO JAIAK, NORTASUNEZ BETERIK

**Garai batean Elgoibarko hainbat kale eta auzotan egiten ziren jaiak, baina urteak aurrera joan ahala, jai gehienak desagertu egin dira. Badira, baina, Elgoibarren tradizio handia duten jai batzuk, eta inoiz etenik izan ez dutenak: Errosario kaleko jaiak. Bertako bizilagunek urtero-urtero antolatu izan dituzte, eta dokumentu zehatzik ez badago ere, 1919ko jaietan ateratako erretratuak aurkitu dituzte artxiboetan. Aurtten, urriaren 7tik 11ra izango dira jaiak (egitaraua 25. orrialdean).**

**Ainhoa Andonegi**

**E**rrosario kaleko jaiak bizilagunenak dira. 3.000 euro inguruko aurrekontua dute jaiak, eta ia dena kaleko jendeak emandako dirua izaten da. Dendari eta tabernariez aparte, norbanakoek ere laguntzen dute. Eta ez diruz bakarrik: txokolatea kaleko emakumeek egiten dute, hamaiketako eta afaria ere bizilagunek prestatzen dituzte, eta ekitaldien antolakuntzan ere izugarri inplikatzeko dira. Horri esker, egitarau zabala prestatzen dute, eta aurtten ere, adin eta gustu guztiarentzako ekitaldiak izango dira. Ama Birjinari loreak eskaintzea eta salbea ohi-koak dira, baina berrikuntzak ere sartu dituzte, tartean, Haritz dantza taldeak egingo duen ezpatadantza.

## ERROSARIO KALEKO AMA BIRJINAREN EZPATADANTZA

*Goian, Haritz dantza taldea ezpatadantza egiten. Behekoa 1919ko irudia da, Errosario kaleko jaietako.*

Haritz dantza taldeak Elgoibarko ezpatadantza birsortuko du Errosario kaleko jaietan. Dantza horren inguruko erreferentzia askorik ez dago, baina Koldo Lizarralderen *Elgoibar dantzan* liburuaren arabera, orain dela 500 urte ingurukoa da. Batzuek gudarekin lotzen dute ezpata dantza, baina, beste batzuen ustez, gremioen dantza da. Normalean, herriko jaietan edo herriko pertsonaia garrantzitsuak omentzeko egiten zen ezpatadantza. XVI. mendean Gorpuzti-egunean egiten zen Elgoibarren. Gerora, Errosarioko Ama Birjinaren kofradia sortu zen, eta urriko lehenengo domekan egiten zuten dantza Errosario kalean, XVII. mendean. Haritz dantza taldekoek urriko bigarren domekan egitea erabaki dute, eta datozen urteetan ere horrela egingo dute.

Dantza haren datu zehatzik ez dagoenez, ezpata dantzaren errekreazio bat egingo dutela adierazi du Jon Lizarraldek, “ezinezkoa delako hura bera berreskuratzea”.

Urriaren 11ko dantzaldian, emakume eta gizonetakoek hartuko dute parte, eta jantzi bereziak eramango dituzte, gainera. Hori bai, Jon Lizarraldek ez du aurrerapenik eman, eta sorpresa izango dela aipatu du. Horrez gain, Errosario kaleko ezpatadantzaren txanpona eramango dute soinean. Eliza aurrean, Kultur Etxe aurrean eta Errosario kaleko Ama Birjinaren aurrean egingo dute dantza.

Ohitura zaharrean dantza egin ondoren pastak eta ardo gozoa ematen zizkieten herritarrei, eta aurtten ere halaxe izango da. Udaltxeko arkupetan eskainiko dute mokadutxoa, pasta eta ardo gozoarekin.



## ESKERRIK ASKO, JUANITO



Aurtengo jai batzordeak Juanito Gorostizari eskerrak eman nahi dizkio hainbat eta hainbat urtetan egindako lanagatik. Dendaz denda, tabernaz taberna eta etxez etxe ibiltzen zen dirua batzen, eta egitaraua prestatzen. Azken urteotan erreleboa hartu diote kaleko merkatariek, baina, hala eta guztiz ere, pilota partiduen ardura berak hartu izan du.

Iparraldeko pilotari onenetakoak etorri izan dira Errosario kaleko jaietan, Juanitori esker. Salbea irakurtzen ere jardun izan du, eta hamaika afari egin izan dituzte familiaren tabernan, Gorostizan. Gaur egun Errosario kalean bizi ez arren, pozik eta harro dio Juanito Gorostizak Errosario kalekoa dela. "Elgoibarko kalerik ospetsuena zen garai batean, eta jende garrantzitsua bizi zen bertan". Urte bateko jaietan San Bartolome kaleko bizilagunei ez zietela Errosario kaleko jaietara sartzen laga gogoratzen du, irribarrez. Bere esanetan, jai handiak izan dira beti Errosario kalekoak, eta urteren batean makalunea izan badute ere, "sekula etenik ez dute izan". Hori guztia kontuan izan dute, eta aurren omenaldi txiki bat egingo diote.



*Ama Birjinari salbea kantatzen diote. Goikoa 1919ko irudia da, eta behekoa 1995ekoa.*

## NORTASUNA ETA ETXEEN IZENAK

Kalearen nortasuna berreskuratu dute aurren Errosario kaleko jaien antolatzaileek. Elgoibarko kalerik garrantzitsuenetakoa zen antzina, eta Feria kalea izenez ere ezagutzen zen, baseritarrek bertan lotuta lagatzen zutelako ganadua feria egunetan. Orduan, etxe bakoitzak zeukan izena. Normalean, eraikin bakoitzean familia bat bizi izaten zen, eta horren izena hartzen zuten etxeak. Kalearen plano hartu, eta izen horiek gogoratu dituzte antolatzaileek.



## ERROSARIO KALEKO ETXEAK

- |                          |                        |
|--------------------------|------------------------|
| * AMISTAD                | 35. BELOKI             |
| 1. POLONGUA              | 2. CRISTINA            |
| 3. MOSKOTENEKUA-BORRAJEN | 4. AÑANA               |
| 5. LUISENKO TABERNA      | 6. ZABALA AROTZA       |
| 7. MAZZANTINI            | 8. JAUREGINEKUA        |
| 9. ERREGIN ATXUA         | 10. KURUTZALEI         |
| 11. EMILI ARRAINDUNA     | 12. KAKUMENEKUA        |
| 13. TEODORAN PELUKERIXIA | 14. ELORRIXANEKUA      |
| 15. ARREGINEKUA          | 16. KANUTONEKUA        |
| 17. RUPERTANEKUA         | 18. PORRU              |
| 19. DEL FRANCES          | 20. IÑAXIXO            |
| 21. TORLOJERONEKUA       | 22. MOTXANEKUA         |
| 23. TXITXARRONEKUA       | 24. ALDABE-PETRA GORRI |
| 25. ZINEKO PETRA         | 26. NARRUNEKUA         |
| 27. KATUKUANEKUA         | 28. RUSONEKUA          |
| 29. DE LA CRUZ           | 30. ALDAPANEKUA        |
| 31. KABITXONEKUA         | 32. SANTI BONBERUA     |
| 33. PULIDORA             | 34. IZETANEKUA         |

*Sailkapena, gaur egungo portalen zenbakien arabera.*



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enertzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Laster arte, pirata

Ez da denbora asko joan zarela, eta gauza asko esateko gelditu direla iruditzen zait. Gutun hau idazten dizut, ez zuk irakurriko duzulako, baizik eta zure familiak eta lagunak irakurriko dutelako. Zuk aspaldi ikasi zenuen jendearen hitz eta aurpegietan irakurri ordez pertsonen bihotzetan irakurtzen, eta ziur nago aspaldi irakurri zenuela nire bihotzean. Eskerrak eman nahi dizkizut zu ezagutzen uzteagatik, eta eskerrak eman nahi dizkiot zure familiari zu mundu honetara ekartzeagatik eta zinen bezalakoa izaten laguntzeagatik. Urte asko pasa dituzu borrokan, eta ez da inoiz erraza izan, baina hala ere askotan zu zinen gu animatzen gintuzuna zure irribarrearekin, indarrarekin eta bizitzeko erakusten zenuen gogoarekin. Niretzat behintzat, eta ziur nago beste jende askorentzat ere, aurrera jotzeko adibide izan zara, eta izango zara. Ezingo ditut ahaztu zurekin pasatako orduak, algarak, zure irribarrea, zure begi alaiak... zu zaren guztia. Orain dela urte asko, pertsona batek esan zidan, "agur" benetan joaten diren lagunei bakarrik esaten zaiela, baina hau ez da zure kasua, izan ere pentsamenduetan, ametsetan, oriotzapenetan eta hain ondo ezagutzen zenituen gure bihotzetan egongo zarela. Beraz, gero arte bakarrik. Laster arte pirata! Muxu handi bat familiari eta ingurukoiei.

Naiara Alguacil ☺

### Kaixo, Ane

Txiki-txixiak giñala ezagutu zinttugun, eta ordutik, lagun haundixa izan zara guretzat. Danetik pasau dogu alkarrekin. Alka-

rrekin ikasi genduan soka-saltuan jolasten, edo ezkutaketan... Alkarrekin jolasten genduan parkian ere. Bata bestiaren atzetik ibiltzen giñan Plaza Txikiko txirristada zaharrian, eta alkarri egiten giñon bultza kolunpi-xuetan, kulunpixua gora-gora joan zedin.

Eta txikitik parkian bezela, azken urtietan ere alkarri bultzaka jardun dogu. Baten batek pentsauko dau gu ibili garala zuri bultzaka. Kulunpixuari bezela, indar gehixagokin aurrera egitteko. Baiña ez da beti holan izan. Zuk ere egin diguzu eta bultza. Indarra erakutsi diguzu, eta umore ona. Bizitzari irribarre egiten erakutsi diguzu. Soka saltuan jolasian ariko bagiña bezela. Ez da gutako inorentzako erreza izan momentu askotan, baina sekula ez diogu parkian jolastiari laga.

Politt-politta izan da zu bezelako lagun bat albuana euki izana. Alkarri horrenbeste emateko. Alkarrekin horrenbeste ikasteko. Oin ere, ezkutaketan gabizela pentsatzen dogu batzuetan, alhora begittu eta topatzen ez zaittugunian. Ez zaittugu ikusten. Ez dakigu nora jua zaran. Baiña hamentxe segitzen dozu. Jada txirrista zaharrik ez dagan Plaza Txikiko parke horretan segitzen dozu. Eta gure portalian zain zaude. Eta zure etxepian. Eta ikastolako bidian. Eta Plazan, Madalan, Lanbroako terrazan, Azaolan eta Zarautzen. Gurekin zaude.

Ez dogu sekula ahiztuko zurekin ikasitakua, ezta zurekin pasatuko denboria. Eta aurrerantzean ere, irribarrez gogoratuko zaittugu, pozik, merezi dozun moduan. Zure lagun bihurri horrek esaten daben bezela, pilla, pilla, pilla maitte zaittugu. Illargiraino eta buelta! Eta zurekin kantatzen zeben bezela, milla pilla eskerrik asko! Beti izango zaittu-

gu goguan. Iñoiz ez agur. Beti gero-arte.

Lagunak ☺

### Eskerrik asko, Ane

Azkenean iritsi zaigu inork nahi ez genuen ueua. Segundo labor hori. Zuk, edonork duen altxorrik preziatuena galdu duzu, bizia. Guk... bizikide aparta. Zu ezagutzeko zortea izan dugunok ongi dakigu.

Loak hartu ezin nauen gau honetan, hainbestetan oparitu izan didazuna eskaini nahi nizuke: nire esker ona, nire miresentza, egoeren gainetik beti dena eman duzulako.

Gure pirata adoretua... zenbat erakutsi diguzun! Eta zure izateko erarekin konkistatu dituzun bihotz guztientzako, balore askoren irudi bihurtu zara, Ane. Beti aurrera! Erori... eta altxa. Eta altxarazi! Beti irribarre bat soinean eta eskerrak ezpainetan. Uneoro besteei laguntzeko eta besteengan pentsatzen. Bizipozaren postaria. Kementsua. Zurrumbilo nekazina. Zentzuduna. Keinu txikien maitalea. Borrokaren eredu. Zu prexioxi... beti prest!

Eta ikasi dugu. Lekukoa gure eskuetan dugu orain. Zuregandik jaso dugun banderak altxor haundi bat darama bere baitan. Ez izan dudarik: harro astinduko dugu, eta, zor dizugulako, nonahi aireratu eta zabalduko dugu. Ziur naiz, zauden tokian zaudela, erne izango duzula zure kataloxa, pirata galduon itxaropen argia pizteko.

Mila esker, koloretako bihotz handi hori gurekin konpartidu izanagatik. Beti maiteko zaitugu! Eta esan ohi zenidan bezala... "ikusiko gera!". Txokomarrubizko bat zuretzat, Ane, pa!

I.A. ☺

# Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea


Nafarroa enparantza, 2 · 20870 ELGOIBAR  
 ☎ 943 74 41 12  
 Faxa: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Asier Orbea, Oier Narbaiza, Aihara Argoitia KAZETARIAK Oier Narbaiza PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZAILA Zalao Arnaiz  
 MAKETAPEN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILAK Oihana Tarragual, Ibai Portu, Ane Odría, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Anjel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegi, Sugar Etxaniz, Arkaitz Irueta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva García, Miriam García, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.750 ale  
 LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855





Ainara Sedano

Epa, Noe, abuztuko oporrak nola joan dira? Ondo, se-guru! Ni jada beste batzuen be-


harrean nabil! Nondik nora ibili ote zara. Ni Italian ibilia naiz, Zer-deña irlan zehatzagoak izateko. Azken orduan proiektatutako bi-daia izan zen arren, oso beharrezko genituen deskantsua izan da: la-sai esnatu, hondartzan etzanda eguna eman, eta arratsalde partean ardo zuri-sagardo pare bat edan bero itzeleko gauak apur bat amata-tzeko.

Italian egon garenaldi bakoitzean sumatu dugu, eta oraingoan guztiz egiaztatu ahal izan dugu: italiarrek sekulako garrantzia ematen diote itxurari, eta, beste tokietan ez bezala, mutilengan igarri dugu ba-tez ere. Ezinbestekoa pitxitanga zuri-zuria, eta hankak ilez guztiz gar-bi. Horrez gain, hondartzan orduak emandakoaren emaitza, kolore morenoa. Gorputz landuak, ile txukunak, eguzkitako betaurreko mo-dakoak eta handiak! Poloen idunak gorantz igota... eta mutilak hala ikustera ohituta ez gauden euskaldunen neskenzako, agian, demase-ko gurtza norberaren itxurari!

**“Eskertuko nuke hemengo mutilek itxura gehiago zainduko balute”**

Hala ere, Noe, nik behintzat eskertuko nuke hemengo mutilek itxura pixka bat gehiago zainduko balute (azken belaunaldietako gaz-teengan aldaketa igartzen hasia den arren). Ni behintzat txandal, men-diko bota eta Club Juvenileko kamisetez apur bat aspertuta banago. Italiarren mailara iristea ere ez nuke gura, baina pixkatxo bat...

Agian mamigabeko ideiaz aritzen naizela usteko dute askok, bai-na... ez dut gezurrik esango. Niri itxura axola zait. Eta zuri Noe?



Noemi Otegi

Ezin gezurrik esan, Ainara, niri ere axola zait. Kanpoko itxura baita gure lehenengo aurkezpena. Edonor ezagutzerakoan, ematen digun lehenengo itxuraren arabera halakoa edo bestelakoa denaren informazioa jasotzen dugu. Batzutan egia da informazioa okerra izaten dela, baina beste batzuetan bete-betea asmatzeko gai izaten gara. Horrek ez du esan nahi beti punta-puntako jantzie-kin ibili behar denik, ezta gutxiago ere! Mendira joateko mendi-ko arropa baino hobeagorik ez dago! Hondartzara makilatuta eta perfumatuta joatea baino okerragorik, berriz, ezin egon. Eta ez da, ez, erraza izaten aiposena asmatzea.

**“Lehen inpresioak ardura ez baligu, gauzak sinpleagoak izango lirateke”**

Nahiko nuke mutilak pixka bat gehiago zaintzea, nahiz eta dezente hobetu den kontua, baina, berriro ere jantziekin gerta-zen den moduan, erdi bideko zerbait gurako nuke, gehiegi ere ez! Akaso, irakurle mutil batek pentsa lezake horrela zaila dela asmatzea, eta arrazoi osoa dauka. Baina horrelakoa izaten da bizitza, oro har, noiz gehiegi, noiz gutxiegi, justuko tamaina to-patzearen lana.

Behin baino gehiagotan pertsona berri bat ezagutzerakoan pentsatu izan dut zenbat kostatzen den naturala izatea. Edo lan-elkarrizketa batera zoazenean sortzen diren dudak, isilegia ez agertzea, ezta hitzunezia ere, zure izaera nola erakutsi asma-tzea zaila izaten da. Dударик gabe, azaleko itxurak edo lehen in-presioak ardura ez baligu, gauzak sinpleagoak izango lirateke, baina sinpletasuna hain izan daiteke aspergarria!



Elgoibarko Udala



ELISKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



Krisiari aurre egiteko neurriak hartuko dituela iragarri du Espainiako Gobernuak.

## Zer iruditzen zaizu BEZ-IVA zerga igotzea?



**Antonio Aldazabal**  
61 urte, jubilatua

Ondo ez, hori gure poltsikoarentzako ez da ona. Nire ustez, prezioak igotzea guretzako kaltegarria da. Ez dakit ba, krisiari aurre egiteko neurririk egokiena den hori! Nire ustez, prezioak eta zergak igo baino lehen, beste zeozer egin beharko luke Gobernuak.



**Javi Sanchez**  
44 urte, langabetua

Gaizki ikusten dut. Diru asko daukanari igotzea ondo egon daiteke, baina ni bezala langabezian da goenak ezin dio zerga igoerari aurre egin. Krisi egoeran larri gaudenok, gehiago itoko gara erabaki horrekin. Lanpostuak sortu behar dira krisitik irteko.



**Juan Fernandez**  
45 urte, arotza

Gehiegizkoa da, nire ustez BEZ-IVA igotzea. Ni erregulazioan nago, eta nire moduan jende asko dago. Zergak denoi berdin igotzea ez zait bidezkoa iruditzen. Diru ahalmen handia duenak ordaindu ahal izango du, baina diru gutxi duenak ez. Sarreraren arabera egin beharko lukete.



**Maria Teresa Abad**  
74 urte, etxekoandrea

Ez dakit, baina egia da nonbaitetik lortu behar dela dirua. Irratian entzun dudanez, diru gehiago duenak ordainduko ei du, baina nik ez dut gehiegi ulertzen. Gazteek gu baino gehiago kontsumitzen dute, eta horiek igarriko dute gehiago igoera hori.

**HAIR'S**  
ILEA PAINDEGIA  
San Bartolome, 6 behea  
Tel.: 943 53 12 79

Martitzenetan jubilatuen eguna:  
Orraztu 8 €  
Garbitu, moztu eta orraztu 14 €

**Lanbroa**

Gosariak  
Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.  
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06




**Andikanotik Maltzagara arteko bidegorrian arauak ipini behar dira:** “Andikanotik Maltzagara arteko bidegorria oso ondo dago, baina zirkulazio arau batzuk ipini behar dira. Umeekin joaten naiz paseatzera, eta jendea nahi duen moduan ibiltzen da. Batzuk bizikletan joaten dira; besteak, patinekin; eta bakoitza nahi duen lekutik ibiltzen da. Nire us-tez, arautu egin behar da. Istripuak gertatu aurretik hartu behar dira neurriak”.



**Jende askok ez ditu Urasandiko zebrabideak errespetatzen:** “Goizeko 9:00etan ume asko ibiltzen dira Urasandin, Herri Eskolara joateko. Asko autobusean joaten dira, baina beste asko oinez joaten dira, tartean, Urasandin bertan bizi direnak. Herri Eskolaren goiko aldean dago aparkalekua, eta hango zebrabidea ez du inork errespetatzen. Autoak ziztu bizian ibiltzen dira, eta egunen batean, norbaitek umeren bat harrapatuko du. Abiadura murrizteko zebrabidea altu jartzea eskatuko nioke Udalarari”.

**Pista Beltzak konpontzeko beharra dauka:** “Herriko hainbat gune berri dituzte azkenaldian, eta, egia esan behar badut, oso ondo gelditu dira. Hala ere, oraindik badago zer hobetu Elgoibarren, eta horietako leku bat Pista Beltza da. Lurra egoera oso txarrean dago, aparkalekuak ez daude markatuta, eta trenbide aldera ematen duen alambre-hesia ere oso zahartuta dago. Eskertuko genuke ingurune hori berritzea”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) / 943-74 41 12



## JULIAN VILLENA MONSALVE

*Zure alaitasun, zintzotasun,  
 eta eskuzabaltasunagatik,  
 guretzako izan zaren guztiagatik,  
 beti izango zaitugu gogoan  
 eta bihotzean.*



*2009ko irailaren 27an hil zen Santa Cruz de Mudelan, 78 urte zituela. Haren omenezko meza izango da urriaren 3an, zapatuan, 19:00etan San Bartolome Deunaren elizan. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.*

## Danobat izango da munduko lehen enpresa pala eolikoak modu mekanizatuan egiteko makinak ekoiztuko dituen

Elgoibarren eraikitzen diharduten enpresan egingo dituzte


**D**anobat enpresa energia eolikoaren alorrean sartu da, eta bera izango da errotentzako palak modu mekanizatuan ekoizteko makinak egingo dituen munduko lehenengo enpresa. Danobat Taldeko zuzendari nagusia den Rafael Barrenetxearen esanetan, orain arte eskuz egiten ziren pala eolikoak. Danobatek bost urte eman ditu ikerketa lanetan. Barrenetxearen ustez, berrikuntza garrantzitsua izango da.

Ekoizpen berrirako planta berria eraikitzen ari dira, eta 2010. urte hasierarako inauguratzea aurreikusten dute. Hamar milioi euroko inbertsioa egingo dute, eta hogei lanpostu berri sortuko dira. Sektoraren lidergoa eskuratzea da Rafael Barrenetxearen asmoa.

Horrekin batera, aeronautika alorrean ere barneratu da Elgoibarko enpresa, eta bost milioi euroko kontratua sinatu du Iberiarekin. Motorren turbinentzako pala errekurbatuak egingo dituzte. Barrenetxearen esanetan, “Europako lehenengoak izango gara horretan”.

### Trenbidearen sektorea

Danobatek, bestalde, erreminta-makinaren sektorean izan den eskaerarik handiena eskuratu du. 63 milioiko eskaera Errusiatik dator. Trenen ardatz muntatuak egiteko eskaera da, eta Bergaran zabaldu berri duten Danobat Railway Sistem enpresak egingo ditu. Eskaera horri esker, trenen munduan buru-belarri sartu da erreminta-makina fabrikatzaile elgoibartarra.



## Pilar ikastetxean zaharrentzako zentroa egiteko obrak 2011. urtean hasiko direla azaldu du Alfredo Etxeberriak



Jarritako epeak betez gero, 2011n hasiko litrateke Pilar ikastetxean zaharrentzako etxea egiteko obrak, eta okerrik ezean, hiru urteren bueltan bukatuko lituzteke. Eraikin osoa eraitsi, eta orube horretan eraikin berria egingo dute.

Ikasturte honetan itxiko dute Pilar ikastetxea, eta orduan hasiko da zaharren egoitza eraikitzen hasteko atzerako kontaketa. Pilar ikastetxearen jabeak prest azaldu ziren eraikin hori Udalari uzteko, baldin eta gizarte zerbitzuetarako erabiltzen bazuten. Eskaintza hori Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinarazi zion Udalak, eta hark Debarreneko kostaldeko zatian (Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutriku hartzen ditu zati horrek) dagoen gabezia ikusita, aurrera egitea erabaki zuen. Beharrak zeintzuk diren eta zelako zerbitzua eman beharko litzatekeen aztertu dituzte, eta Foru Aldundiaren eskariz arkitekto batek prestatu du obra lehiaketara atera ahal izateko beharrezko zirriborroa. Obra esleitu, eta oinarrizko proiektua eskola ixten

denerako prest izatea espero du Udalak, hain justu ere, 2010eko abuztu ingururako.

Lehen aurreikuspenen arabera, 144-180 lagunentzako egoitza, psikogeriatriako eta gizarte eta osasun arloko zerbitzuak, 30 bat lagunentzako eguneko zentroa eta tutelatutako hamarren bat pisu eraikiko lituzkete, gaur egun jolastokia dagoen lekutik gorako zatian -11.000 metro koadro inguruko zatia-. Jolastokitik beherako zatia, 6.000 bat metro koadro ingurukoa, Udalaren beharretarako erabiliko litzateke. Udalak ez du zehaztu oraindik zein erabilera emango dion bere ardura zati horri, baina aparkaleku handi bat egitea ere aztertu du, beti ere diru kontuak zehaztutakoan bideragarria dela ikusiko balitz.

## Izena **Roberto Cearsolo**



Guggenheimeko finantza zuzendari ohiak, Roberto Zearsolo elgoibartarrak, hamar urtean ia milioi erdi euroz jabetu zela aitortu du. Fiskaltzak, akusazio partikularrak eta Zearsoloren defentsak akordioa egin dute: Hiru urte eta erdiko kartzela-zigorra, bidegabe jabetze eta agiri faltsutze delituengatik, eta 2.500 euroko isuna. 2008ko martxoan salatu zuen museoko patronatuak Zearsoloren iruzurra. Horren arabera, 1998tik 2005era 487.000 euro ostu zituen. Gutun baten bidez, Zearsolok iruzurraren berri eman zuen eta 251.000 euro itzuli zituen. Gainera, itzultzeko falta ziren 120.000 euroak, hiru hilabetetan itzuliko zituela agindu zuen.

## Zenbakia **30.000**

Mendaroko Ospitalean 30.000 larrialdi kasu hartzen dituzte urtean. Gorka Sarasolak hamar urte daramatza Ospitaleko arduradun postuan, eta, bere esanetan, %27 hazi da larrialdien kopurua denbora horretan. Ondorioz, Mendaroko Ospitaleko larrialdien gunea handitzen ari dira. Iazko urrian hasi zituzten obrak, eta urte amaierarako amaituko dituztela aurreikusten dute. 2010eko urtarilerako larrialdien gune berria inauguratzea espero dute.

## Lekua **Sigma auzoko eskailera mekanikoak**

Obra urtea izango zela aurtengoa iragarri zuten Udaleko arduradunek, eta halaxe izaten dihardu. Estarta auzoko eskailera mekanikoen obrak hasi dituzte dagoeneko, eta abendurako amaitzea aurreikusten dute. Elizara eta auzoko goiko aldeko portaletara iristeko zailtasunak konpondu nahi dituzte eskailera mekanikoekin. Obrak 358.000 euro inguruko aurrekontua dauka, eta Aikia enpresak gauzatuko du. Horrela geldituko da obra ondoren.



## **Baserriko Gazteen Martxa dela eta, bilera informatiboa**

Baserritar gazteen martxa Elgoibartik pasatuko da, urriaren 23an. Nondik norakoen berri emateko, batzar informatiboa izango da astelehenean, urriaren 5ean, Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 19:30etik aurrera. Martxa 23an hasiko da Azpeitian, eta 25ean amaituko da Durangon. Baserritar gazteek oinez egingo dute ibilbidea traktore baten atzetik. Akiulu taldeak antolatu du ekimena, kale-tarrek jakin dezaten badirela baserritar gazteak lanean gogotsu. Bereziki kaletik baserrira jo nahi duten gazteei martxarekin bat egiteko deia egin die Akiuluk.

## **1969an jaio eta Ikastolan ikasitako bazkaria**

1969an jaio eta Elgoibar Ikastolan ikasitakoek euren 40. urtebetetzea ospatzeko bazkaria egingo dute urriaren 31n. Interesatuak 50 euro sartu beharko dituzte ondorengo kontu korronte zenbakian, urriaren 28rako: 2101 0036 66 0012438016. Informazio gehiago 619 121 332 (Maria Pilar) edo 656 722 415 (Lorea) telefonoetan.

## **Gure denda, gure poza kanpainaren zozketa**

*Gure denda, gure poza* kanpainak bizikleta tolesgarri bat zozketa-tu du irailan. 20470 zenbakia izan da saritua (3328 ordezkoa). Irabazleak urriaren 26ra arte dauka saria jasotzeko epea. Informazioa 943 741 050 telefonoan.

## **Miskiren zozketa**

Peruko umei laguntzeko errifren zozketa egin dute, eta irabazleek bi lagunentzako afari bana jaso dute. Hauek dira zenbaki sarituak: 4491 (Aterpe), 187 (Belaustegi), 420 (Gabi), 1399 (Herri Gain), 2799 (Ibai Ondo), 3849 (La Bodega), 3474 (San Pedro), 4512 (Sigma), 5264 (Txariduna), eta 5315 (Usatorre).

## Erretratu zaharra



1956

Aste honetako erretratu zaharra Maite Vallejok ekarri du BARREnera. 1956. urtean aterata dago, Donostian. Orduan 20 urte inguru zeuzkaten erretratuan agertzen diren neskek, eta Donostiara joan ziren eguna pasatzera. Tenez egin zuten bidaia, eta oso ondo pasatu dutela adierazi du Maitek berak. Oso ondo konpontzen ziren lagun horiek, eta sarri egiten zituzten horrelako irteerak. Gogoratu ditzagun neska horiek:

**Goian, ezkerretik eskumara:** Maite Vallejo, Mari Paz Gabilondo eta Milagros Totorika. Azken hori Mexikon bizi da gaur egun, eta datorren urriaren 10ean bere urtebetetzea denez, lagunek zoriondu egin nahi dute.

**Makurtuta,** Maria Luisa Urrutia eta Arantza Iriondo.

## Gure berbak

Hiztegixa: bedarrak eta landariak (7) Eta animalixak (1)

- ♦ **ZALGA, zalgia:** Gari artean hazten den belar txarra.
- ♦ **ZANAORIXA, zanaorixia:** Azenarioa.
- ♦ **ZIZA, zizia:** Ziza. **Zuza** ere bai.
- ♦ **ZOKOR, zokorra:** iz. Soroko lur koskorra. **Erpill** ere bai. *Zokor-mazua baiño tontuaua dok.*
- ♦ **ZORNA-BEDAR, zorna-bedarra:** "Cardo enano".
- ♦ **ZUMAR, zumarra:** "Olmo".
- ♦ **ZUME, zumia:** "Mimbra".
- ♦ **ZUZA, zuzia:** Ziza. Udaberriko perretxiko preziatua. **Ziza** ere bai.
- ♦ **ZUZTAR, zuztarra:** Landare baten sustraia.

Gatozen, behiñ bedarrak eta landarak ikusitta, animalixekin; hona hemen háretako batzuen izenak:

- ♦ **ABUTARDA, abutardia:** Basoilo handia.
- ♦ **AHATA, ahatia:** Ahatea. Lehen, bereizketa egiten zen errekaoen (ahatia) eta etxekeoen (paittia) artean. Gaur egun, era bereizgabearen erabiltzen dira askotan. Paittia ere bai..
- ♦ **ANGIRA, aingiria:** "Anguila".

- ♦ **AMORRAÍN, amorraíña:** Amuarraina.
- ♦ **ANGULA, angulia:** "Angula".
- ♦ **ARABAZOZO, arabazozua:** "Tordo de campanario".
- ♦ **ARGI-OILLAR, argi-oillarra:** "Abubilla".
- ♦ **ARKAKUSU, arkakusua:** "Pulga". **Arkakuso** aldaeran ere bai.
- ♦ **ARMIARMA, armiarmia:** Armiarma. **Maasmia** ere bai.
- ♦ **ARRANBELTZ, arranbeltza:** Arranoa. **Zapelaitza** ere bai.
- ♦ **AZKONAR, azkonarra:** "Tejón".
- ♦ **BAKILLAU, bakillaua:** Bakailaoa. *Patatia zuritzera, da bakillaua txikitza ta, juten giñuazen.*
- ♦ **BARE, baria:** 1. "Babosa". 2. iz. "Flato". **Bariak heldu.**
- ♦ **BASAKATU, basakatua:** "Gato montés". Izen generikoa da, katami-xarrak, ipurtatxak edo paparzurixak, kataparduak... izendatzeko erabiltzen da, ugariak ez izaki oso ezagunak ez direlako seguruenik. **Basakatu paparzurixa:** "Turón". Baita **Ipurtaba** ere.
- ♦ **BELA, bella:** Belea, erroia.
- ♦ **BELATXINGA, belatxingia:** Bele mota bat, bele normala baino txikiagoa.

Jesus Mari Makazaga

ESKERTZA

## ANE PEREZ ALBERDI

2009ko irailaren 23an.

"Gure bihotzak zure irrifarrarekin margotu dituzulako".

Erizaintzako lagunak



*Irailean...*

## JAIOTAKOAK



**Aiora Ruiz Igartua**  
Irailak 7  
Miguel eta Igone



**Ihart Rojo Osoro**  
Irailak 9  
Aitor eta Iratxe



**Asier Arakistain**  
**San Martin** Irailak 19  
Luis Mari eta Begoña



**Maialen Bereziartua**  
**Lasuen** Irailak 28  
Manex eta Nagore



**Sare Iriondo Iriondo**  
Irailak 8  
Josu eta Ane



**Manex Diaz Hoyos**  
Irailak 20  
Roberto eta Nekane

**Erik Urresti Osoro**  
Irailak 14  
Asier eta Alaitz

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo barixakurako ekarri behar duzu erretratua BARREneko erredakziora edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik **2 euro** kobratzen dugu.

## EZKONDUTAKOAK

• Alaitz Cuende Azula eta Iosu Agirregomezkorta Agote Irailak 12

## HILDAKOAK

Julian Mujika Iturzaeta • **89 urte** • Irailak 2  
 Marcelino Miguez Perez • **81 urte** • Irailak 4  
 Ana Mari Mugerza Oria • **70 urte** • Irailak 6  
 Mari Cruz Zuloaga Zubiaurre • **90 urte** • Irailak 9  
 Mari Carmen Zuazubizkar Goenaga • **85 urte** • Irailak 13  
 Herminia Garcia Ojea • **96 urte** • Irailak 15  
 Sebastian Etxabe Etxaniz • **80 urte** • Irailak 17  
 Teresa Fernandez Conde • **76 urte** • Irailak 18  
 Pedro Elizburu Gorrotxategi • **75 urte** • Irailak 21  
 Rafael Rodriguez Unchalo • **78 urte** • Irailak 22  
 Maria Sainz Sarobe • **101 urte** • Irailak 23  
 Ane Perez Alberdi • **19 urte** • Irailak 24  
 Miren Ortiz de Landaluze • **86 urte** • Irailak 29  
 Julia Iriondo Urbietta • **85 urte** • Irailak 29

# ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua  
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK**  
**TRASLADOAK**  
**KOROAK**

**NORBANAKOEI**  
**eta KONPAINIEI**  
**zuzenduriko**  
**zerbitzuak**

**Erietxe zentruetan**  
**zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR  
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27  
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56  
(Sakelekoa) 635 756 295

IV. URTEURRENA

## SABIN LARREATEGUI ORUNA

2005eko urriaren 8an hil zen.

Haren oroimenez IV. urteurreneko meza izango da, eguenean, urriak 8, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokan.

Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.



## Borja Uzuriaga gogoan Aiastia-San Migeleko jaietan

**E**guraldi onak lagunduta, jende ugari batu zen Aiastia-San Migeleko jaietan. Urtero legez, Euskal Herriko arraza libreko ardi-txakur txapelketa, idi-demak, pilota partidak, bolo txapelketak eta Aiastiako igoera jokatu dira. Ardi txakur txapelketan, Mikel Aizpurua oartzuarrak irabazi zuen, eta auzoko Jose Antonio Arrillagak egin zuen bigarren, *Linda* txakurrekin. Boloetan, berriz, Juan Unamunzaga gailendu zen, lau txirlo botata, eta Xabier Loiola eta Javier Osoro elgoibartarrak sailkatu ziren bigarren eta hirugarren, hiruna txirlorekin. Zalan-tzarik gabe, baina, Haritz Euskal Dantzari Taldeak egindako dantza ikuskizuna izan zen ekitaldirik hunkigarriena. Izan ere, dantzariak omenaldia egin zioten errepide istripuan hil zen Borja Uzuriaga sanmigeldarrari. Arabako eta Lapurdiko dantzak eskaini zituzten, eta ikuskizunaren amaieran lore eskaintza egin zioten Uzuriagaren senideei. Txahalaren errifon zozketa ere egin zuten, eta hauxe izan zen zenbaki saritua: 3995.



Lore eskaintza Borja Uzuriaga zenaren etxekoei.



Jose Antonio Arrillaga, Mikel Aizpurua eta Jose Antonio Agirre.



Domeka arratsaldean jokatu ziren idi-demetako argazki bat.



Giro paregabean ospatu zituzten sanmigeldarrek jaiak.



Jose Antonio Arrillagak bigarren egin zuen *Linda* txakurrekin.



Haritz dantza taldekoak dantzan, Borja Uzuriagaren omenez.



# Zure autoa saldu nahi duzu?

- Motor gehigarri berezia prestatzen ari da BARREN astekaria.
- Zuotako norbaitek autoa, motorra edo auto-karabana saltzeko asmoa badauka, orain du aukera.
- Bidali zuen ibilgailuaren ezaugarriak, prezioa eta argazki bat eta BARRENEko motor gehigarrian jarriko dugu.
- Iragarkia jartzeagatik 18 euro kobratuko dugu.



## ORDAINKETA EGITEKO:

BARREN astekariko erredakzioan:  
Nafarroa enparantza, 2; edo,  
honako kontu zenbakian  
egin daiteke:  
2101 0036 61 0125245670 (Kutxa)

Ibilgailuen ezaugarriak  
eta argazkiak bidaltzeko:  
[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)



## BARRENEko erretratuak salgai!

BARREN astekarian edo  
[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net) atari digitalean  
argitaratzen diren erretratuak erosteko  
aukera daukazu (erretratu bakoitza 2 euro).



Nafarroa enparantza, 2 - Elgoibar - Tel.: 943 744 112 - [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

# Elgoibarrek omenaldia eskainiko dio Gotzon Garateri, haren heriotzaren urteurrenean

Eguenean oroitarria bistaratuko dute euskaltzalearen jaiotetxean

**E**lgoibarko herriaren omenaldia jasoko du Gotzon Garate idazle euskaltzaleak, haren heriotzaren urteurrenean. Garateri eskerrak emateko eta haren lana gogora ekartzeko, egitarau zabalaren antolatu du Elgoibarko Izarra kultur elkarteak Udalarekin elkarlanean, *Gotzon akorduan hartuta* lemapean.

Ekitaldiak heriotzaren lehen urteurren egunean hasiko dira, urriaren 8an. Egun horretan, Gotzonen jaiotetxean oroitarria bistaratuko dute, San Bartolome kalean. Hurrengo egunean, berriz, kantu kalejira izango da Kultur Etxetik Madalara bitartean. Horrez gain, Kultur Etxean hiru hitzaldi izango dira, hainbat idazle eta euskaltzale esanguratsuk eskainita; Musika Eskolako auditorioan, berriz, *Mende baten aldarria* ikuskizuna. Astekari honek ere gehigarri berezia emango du argitara urriaren 16an.

## Senideak aurkezpenean

Omenaldiaren inguruko nondik norakoak astelehenean aurkeztu zituzten. Bertan izan ziren Udaleko, Elgoibarko Izarra eta omenaldia antolatzeneko herri-batzordeko ordezkariak. Horiez gain, Garateren senideak ere han izan ziren. Haien izenean Jenaro Garatek hitz egin zuen. Aurten anaia Inazio ere hil zaiela adierazi zuen. “Caracasen dugun anaia Jose Luis, infartuak jota dago. Beraz, guk, Gotzonen anaia-arrebok heriotza begien aurrean dabilgu, baina fededunak garenez, haren heriotzak eman digu poza gehiago, mina baino, izan zelako beti maite-jardunean ibiltakoa. Eta gizon, langile, kristau eta jesuita apaiz garatuta hil zen”, esan zuen Jenarok. “Gure partetik, ahalegina egingo dugu gure Gotzonekin bat egiteko eguna ahalik eta gehien atzeratzeko”, gaineratu zuen.

Jenaroren esanetan, familiakoak pozik daude askok eta askok goraiatu dutelako Gotzonen lana. Horrek erakutsi die anaiaren lana garrantzitsua izan dela.

Omenaldiak herriarena izan behar duela nabarmendu zuen Jon Peli Uriguen



Aste honetan aurkeztu dute ‘Gotzon akorduan hartuta’ omenaldia.

euskara zinegotziak aurkezpenean. Azken batean, herritarrez osatutako batzorde batek lanean jardun du omenaldia gauzatzeko.

## Euskaltzaletasunari eutsi

Ander Soraluze Elgoibarko Izarra kultur elkarteko presidentearen esanetan, Euskal Herri euskalduna gauzatzea da Garateri egin dakioken omenaldirik onena. “Gotzoni Elgoibarko euskaltzaleon esker ona azaltzeko modu bat da gaur aurkezten dihardugun omenaldia. Lan izugarria egin zuen euskararen alde, eta merezi ditu gaurkoa eta orain arte jaso dituen omenaldi guztiak”, adierazi zuen Soraluzek. “Omenaldiak politak eta beharrezkoak badira ere, Gotzoni egin diezaiokegun erregalirik ederrena gure euskalduntasunari eustea da”.

Garateren euskaltzaletasunaren gainean jardun zuen. “12 urte zituenean piztu omen zitzaion Gotzoni euskaltzaletasunaren argia; Durangora ikastera joan eta azpeitiar bat ezagutu zuenean, hain zuzen ere. Ordutik, euskararen alde ahal zuen guztia egitea izan zen bere bizitzako zereginetako bat”, azaldu zuen. Bederatzi hiz-

kuntzatan berba egin arren, euskara zen bere hizkuntza. “Arriskuan ikusten zuelako egin zuen hainbeste lan euskararen alde”, gaineratu zuen.

Omenaldiko ekitaldiei buruzko informazio zehatzagoa, 24. orrialdean.



Gotzon Garate zena.

## 300 motorretik gora batu ziren domekan Plaza Handian

Elgoibartarrek eginiko harrera eskertu dute antolatzaileek

**M**otorrek hartu zuten joan zen as-  
teburuan Elgoibar. Hirugarren  
urtez jarraian, Skull Ride taldeko  
kideek motorren kontzentrazioa antolatu  
zuten domekarako, eta 300 motorretik  
gora batu ziren Plaza Handian. Ondoren,  
eta errepidera irten orduko, herriko hain-  
bat kale zeharkatu zituen motorren kara-  
banak, eta sekulako ikusmina sortu  
zuen.

Zapatuan ere izan zen zer ikusirik. Ba-  
tetik, gazte batek bi motorrekin egindako  
ikusbizuna, eta bestetik, Bocanada taldeak  
Madalako parkean eskaini zuen kontzer-  
tua. Venerando Cid Skull Ride taldeko ki-  
deak onartu duenez, uste baino jende gu-  
xtiago batu zen kontzertuan, baina, hala  
ere, balorazio positiboa egin dute. Kontzer-  
tu aurretik, 80 bat lagun elkartu ziren sozие-  
danean afaltzeko, eta gaua uste baino  
gehiago luzatu zitzairen gero. Antolatzaileak



“oso gustura” agertu dira elgoibartarrek  
egindako harrerarekin. “Eguraldi onak la-  
gunduta, jende ugari batu zen, bereziki do-  
mekako motor kontzentrazioan, eta horrek  
poza ematen du aurrera begira ere lanean  
jarraitzeko”, nabarmendu du Venerandok.

## Kale kantariak, eta gazta zein sagardo dastaketa hileko azken azokan



**H**ileko azken zapaturo bezala Elgoibarko baserrietako produktuak eroste-  
ko eta ganadu feria ikusteko aukera izan zen irailaren 26a Elgoibarren.  
Azkeneko azoka hortan, gainera, Mausitxa baserrikoen gazta eta Lizun-  
dia Txabolakoen sagardoa dastatzeko aukera izan zuten herritarrek. Bide batez,  
Ordiziako azokan saritutako Txillarre eta Mausitxa baserrien lana aitortzeko bi-  
dea eman zuen larunbatekoak. Guztia girotzen Kale Kantariak taldekoak ibili zi-  
ren. Euskal kantu zaharrak abestu zituzten, giroa berotuz.

## Herriko Antzokiko sarrerak Kutxaren bidez lortzeko bidea

Herriko Antzokian egiten diren  
ikusbizun eszenikoetarako sarrerak  
aurrez erosteko sistema aldatu du  
Elgoibarko Udalak, “arinagoa”  
egitearren. Aurrerantzean, Kultur Etxean  
beharrean, Kutxako bulegoan jarriko  
duten kutxazainaren bidez, Internet  
bidez ([www.kutxa.es](http://www.kutxa.es)) edota Telekutxara  
deituta (943 001 200) erosi beharko dira  
sarrerak.

Astlehenean hasiko dituzte lanak,  
baina hilaren 16an jarriko dute berez  
martxan sarrerak eskuratzeko sistema  
berri hori, hain zuzen ere, Ron Lala  
konpainiak eskainiko duen *Mundo y final*  
antzezlarekin batera. Kutxazainaren  
bidez erositako sarreretan, Kutxak ez du  
komisiorik kobratuko Kutxakoa ez den  
beste edozein txartel erabiliz gero, baina  
bai ordea Internet bidez eta Telekutxa  
bidez egindako erosketetan. Azken  
orduak, ikuskizuna hasi aurretikoan,  
sarrera erosi nahi duenak, beriz, takilan  
bertan eskuratzeko aukera ere izango  
du.

## Etxeko konponketak egiteko ikastaroa

Elgoibarko Udaleko Gazteria Sailak  
etxeko konponketak egiteko ikastaroa  
antolatu du 18 urtez gorakoentzako.  
Urriaren 19an hasiko da ikastaroa, eta  
abenduaren 16an amaituko da.  
Astlehenean eta asteazkenean izango  
dira eskolak, 19:00etatik 21:00etara,  
Pedro Muguruza ikastetxearen  
eraikinean.

Ikastaroa 32 ordukoa izango da,  
eta joskuntza, brikolajea, iturgintza eta  
elektrizitatea landuko dira. Interesatuak  
urriaren 9a aurretik eman beharko dute  
izena, Gazteentzako Informazio Gunean.

## Oharra

Joan den astean BARREN  
astekariak kaleratutako *Aitor Nova,*  
*dultzainero taldeko kide berria*  
izenburuko artikularen inguruan, zera  
argitu beharra dago: Nova sartzeak ez  
du esan nahi Victor Zubiaurrek taldea  
laga duenik.

# Iñigo Lazkano eta Nerea Amilibia izan dira San Migeleko igoeran irabazleak

Guztira, 41 lagunek hartu dute parte

**A**urten, Iñigo Lazkano mendarorak irabazi du Aastia-San Migelera antxintxika igoera mutilen kategorian. Emakumezkoetan, Nerea Amilibia izan da nagusi, eta, gainera, errekor berria (24:31:79) ezarri du aiarrak. Guztira 41 antxintxikarik parte hartu dute igoeran, iaz baino 13 gutxiagok. 22 izan dira korrikalari elgoibartarrak, eta aurten ere irabazleen txapela kanpotarrek jantzi dute.



Nerea Amilibia, eta atzetik David Conde.



Nerea Lendinez eta Iñigo Salegi.



Edu Uribe eta Javier Fernandez.



Iñigo Lariz izan zen lehen elgoibartarra.



Lendinez ahizpak eta Nerea Amilibia.



Lariz, Lazkano eta Bengoa.

## Sailkapena

1. Iñigo Lazkano	20:40:90
2. Unai Bengoa	20:41:30
3. Iñigo Lariz	21:46:40
4. Jorge Gonzalez	21:56:30
5. Iñaki Arakistain	22:03:50
6. Ibon Gabilondo	22:13:60
7. Igor Urionabarrenetxea	22:15:50
8. Jose Antonio Ruiz	22:50:00
9. Igor Agirregomezkorta	22:54:90
10. Gotzon Zulaika	22:56:10
11. Jon Larrañaga	22:57:00
12. Igor Fernandez	22:59:90
13. Martin Dominguez	24:25:70
14. Jose Antonio Otxoa	24:26:60
15. David Conde	24:28:60
16. Iñigo Gisasola	24:29:50
17. Nerea Amilibia	24:31:70
18. Javier Fernandez	24:40:00
19. Garikoitz Muñoz	24:41:70
20. Imanol Cerveira	25:22:70
21. Gorka Zebria	25:23:50
22. Eduardo Uribe	25:25:30
23. Alonso Onaindia	25:37:20
24. Dionisio Ramirez	26:26:80
25. Ainhoa Lendinez	26:18:70
26. Ernesto Rodriguez	26:24:00
27. Jose Luis Diez	26:32:20
28. Juan Mari Ugarte	26:53:50
29. Jose Luis Gisasola	26:54:40
30. Nerea Lendinez	27:20:00
31. Iñigo Salegi	27:20:60
32. Elias Fernandez	27:37:60
33. Xabier Bergaretxe	27:38:10
34. Imanol Santos	27:38:60
35. Victor Astigarraga	27:39:00
36. Victor Ugarteburu	27:40:10
37. Antonio Hernandez	27:45:90
38. Ernesto Agirrebeña	27:46:30
39. Jose Luis Yado	28:01:40
40. Pilar Lama	29:28:80
41. Maite Salegi	31:23:50

- Elgoibartarrak
- Mendarorak



# Partida galdu arren, itxura ona eman du Arribillagak DV Pilota Torneoan

Galarza izan zuen bikotekide, eta 22-16 galdu zuten

**A**rribillagak eta Galarzak osatutako bikoteak galdu egin zuen DV Pilota Torneoko lehenengo kanporaketan. Iriondo eta Aizpuru izan zituzten aurrez aurre, eta partidako azken emaitza 22-16 izan zen. Galdu arren, pilotari elgoibartarrak itxura ona erakutsi zuen, eta bera izan zen lau jokalarien artean onena. Pilotari abiadura handia eman zion, eta defentsan ere oso ondo aritu zen. Partida gogorra izan zen.

Arribillagak Getariako pilota txapelketa irabazi du jubilen mailan, eta aurtengoa egin du debuta DV torneoan.



## Bruesaren partidak ikustera joateko autobusak

Saskibaloia zaleek Bruesa ikustera joateko autobusak izango dituzte aurtengo denboraldian ere. Interesatuak Lanbroa tabernan eman dezakete izena. Informazio gehiago eskuratzeko, 649 963 892 telefonora deitu.

## Squasha eta frontoi txikia erreserbatzeko zozketa

2009ko azken hiruhilekorako Olaizaga kiroldegiko squasha edo frontoi txikia erreserbatu nahi dutenek datorren astean izango dute zozketa. Udal Kirol Patronatuak urriaren 6an, 19:30ean egingo du zozketa Kiroldegian. Patronatuko bazkideek doan daukate zerbitzu hori.

## Futbol eskolan izena emateko azken eguna, gaur

1999an jaiotakoek CD Elgoibarko futbol eskolan izena emateko aukera izango dute. Horretarako, Mintxetako bulegoetara jo daiteke, eta gaur da azkenengo eguna. Entrenamenduak datorren urriaren 11n hasiko dira, goizeko 10:00etatik aurrera, Mintxeta bertan.

## EMAITZAK

### ARETO FUTBOLA

Concepto Createch **5** – Orioko tabernak **0**

### ESKUBALOA

Errotaberri **24** – Grupo Eibar Elg. **28** (Sen. nes.)

Errotaberri **29** – IMH Elg. **16** (Kad. nes.)

## AGENDA

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

**Domeka, 4**

**12:00** Elgoibar Debabarrena – Eskoriatza (**Jubenilak**)

### FUTBOLA (Mintxetan)

**Zapatua, 3**

**11:30** Elgoibar – Anaitasuna (**Kad. B**)

**12:30** Elgoibar – Aretxabaleta (**Ohorezko inf.**)

**16:30** Elgoibar – Getariako (**Erreg.**)

**18:30** Elgoibar – Arizmendi (**Neskek**)

### ESKUBALOA (Kiroldegian)

**Zapatua, 3**

**10:00** Astigarraga Elgoibar – Ermua (**Inf. nes.**)

**11:30** Aterpe Elgoibar – Ikus Elgoibar (**Inf. nes.**)

**16:00** Lauko Elgoibar – Leizaran (**Kad. nes.**)

**17:30** IMH Elgoibar – Bera Bera (**Kad. nes.**)

**19:00** Grupo Eibar Elgoibar – Bera Bera (**Kad. nes.**)

**10:00** Tecnifuelle Elgoibar – Zarautz (**Sen. nes.**)

## Idarraga saria

1. Pinilla **14**

2. Guinea **9**

3. Gutierrez **8**

4. Gaizka **5**

## GIDA KOMERTZIALA 2009-2010

Gida komertziala prestatzen ari gara, zure negozioaren telefonoa agertzea nahi baduzu, deitu zenbaki honetara:

**943 743 704**

edo helbide honetara idatzi:

**barren.publi@elgoibarkoizarra.com**

**LANA**

**ESKAERA**

• Emakume euskalduna nagusiak, ezindiak eta gaixoak zaintzeko prest. Eskarmentua du. Josefina.

☎615 762 742

• Neska arduratsua, etxeko lanetarako eta zaintzaile lanetarako prest. Esperientziaduna. ☎663 786 976

• Emakumea nagusiak zaintzeko prest, 17:00etik 10:00era. ☎638 344 377

• Gizonezkoa banatzaile lanetarako edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest. ☎638 344 377

• Emakumea interna lan egiteko prest. ☎680 605 355

• Emakumea lan egiteko prest, lan egunetan edo asteburuetan. ☎618 052 967

• DBHko gaztelania eta matematikako klase partikularak ematen dira. Talde txikiak. Esperientziaduna. ☎943 744 206

• Emakumea arratsaldez edo gauez lan egiteko prest. Garbitzaile lanetan esperientzia. ☎610 632 782

• Emakumea pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Elgoibar edo inguruan. ☎686 521 598

• Haur Hezkuntzako ikasketak amaitu dituen neska, haurrak zaintzen lan egiteko prest, edozein ordutegirekin, astean zehar eta asteburuetan.

☎666 216 098 / 943 740 691

• Emakumea garbiketa lanak, sukaldari laguntzaile lanak edota haurrak eta nagusiak zaintzeko prest.

☎675 940 901

**ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK**

**SALMENTA**

• Altzolan pisua saltzen da. 3 logela, komuna, sukaldaria eta despentsa. Berrikuntza behar du. Teilatu berria. Ekonomikoa.

☎680 707 639

**ALOKAIRUA**

• Pisua konpartitzen da. Erdigunean.

☎655 742 053

• Estudio edo lokal txiki bat alokatzen da. 18 urtetik gorakoentzat.

☎667 838 858

**MOTORRAK ETA GARAJEAK**

• Garajea salgai, San Roken. 2-10 zenbakidun portaletako 60. zenbakia.

☎676 719 705

**BESTELAKOAK**

• Etxez etxe ordenagailuak konpontzen ditut. Prezio onean.

☎630 580 390

• Elgoibarko Babes Ofizialeko pisua (Toletxegainen, geltoki parean), Eibarko beste batekin aldatuko nuke. 70 metro koadro, bi logela, egongela, sukaldaria, komuna eta trasteroa. Garajea.

☎659 381 317

• Negozioa traspasoa, merkatu plazan

☎671 976 028

• Irailaren 4an emakume-praka marroi batzuk galdu ziren Trenbide kalean

☎943 254 177

**OHARRA:**

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero *barren.iragarkilaburak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

**MODULOAK**

Lana / Bestelakoak

**Astebete : 5 euro**

**2 aste : 8 euro**

**3 aste : 10 euro**

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

**Astebete : 10 euro**

**2 aste : 17 euro**

**3 aste : 25 euro**

**ELGOIBARKO IZARRA**

**Kultur Elkarteak**  
amatasun-baimena betetzeko

**GUREAN BAI** proiekturako

**EUSKARA TEKNIKARIA**

behar du

**ESKATZEN DA:**

Euskara maila altua eta informatikan ezagutza

Curriculuma bidaltzeko azken eguna: **URRIAK 9** (barixakua)

**INFORMAZIOA:**

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak

Ubitarte 4, behea - 20870 ELGOIBAR

Tel.: 943 741 746 (Amaia) - [gureanbai@elgoibarkoizarra.com](mailto:gureanbai@elgoibarkoizarra.com)

Jose Angel Zabala

**MAHASTI**



Urdaitegi eta ardandegia

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72



**PINTURAK**  
PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xistion, 2 - 3.sotoa 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA



• Lau, lau, lau... sardina bakalau! Zorionak **Maddi**, urriaren 1ean zure eguna izan delako. Etxekoak.



• Zorionak, **Markel**, urriaren 3an 7 urte egingo dituzulako. Ondo pasa!



• Zorionak, **Mercedes**, jandean 49 urte bete zenituelako. Muxu bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Javier**, bihar 5 urte egingo dituzulako, Muxu potolo bat familiakoan partez.



• Zorionak, **Danel**, 3 urte egin dituzulako. Hiru muxu potolo etxekoan, eta bereziki, Julenen partez.



• Zorionak, **Ioritz**, bihar 12 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Ander**, zure 3. urtebetetzean. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Nahia**, gurasoen partez, 2 urte egingo dituzulako urriaren 3an.



• Zorionak, **Leire**, zure 5. urtebetetzean. Etxekoan eta lagunaren partez.



• Zorionak, **Enara**, irailaren 29an 6 urte egin dituzulako. Muxu handi bat gurasoen partez.



• Zorionak, **Malen**, eguaztenean 8 urte egingo dituzulako. Familiakoan eta bereziki, ahizpa Nahia.




• Zorionak, **Javier**, zure 7. urtebetetzean. Aitita-amama, osaba-izeba eta lehengusuak.



• Zorionak, **bikotela** Azkenean iritsi da zuen eguna. Ondo pasa! Elgoibarko koadrilakoan partez.



• Zorionak, **bikotela** Ondo pasa zuen egunean! Familiako guztien partez.



• Zorionak, **parejal** Ondo pasa zuen eguna! Familiakoan partez.



• Zorionak, **Iker**, hilaren 1ean 2 urte egin dituzulako. Aitita-amama, osaba-izeba eta lehengusuak.



• Zorionak, **aitita eta amama**, zuen urtebetetzean. Familiakoan partez, muxu bat.

## OHARRA

**Erretratu bakarrek agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro.**

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu.

BARREneko bulegora 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

## OKINDEGIA

4 domeka **FOTERO**

## FARMAZIAK

- 24 ORDUZ**
- 2 Yudego
  - 3 Zabaleta  
Garitaonandia (Goizez)
  - 4 Zabaleta
  - 5 Etxeberria (Errosario)
  - 6 Ibañez
  - 7 Garitaonandia
  - 8 Etxeberria (Santa Ana)
  - 9 Fernandez

**Ibañez**  
Rekalde, 1 (SORALUZE)  
Tel: 943 751 638

**Fernandez**  
Herriko enparantza 4,  
Garagarza (MENDARO)  
Tel: 943 756 142

**Zabaleta**  
Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
Tel: 943 751 384

## INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik  
[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)



## 2 barixakua

**Aisialdia**  
**17:30 Kiribilka**

Elgoibarko Izarrak antolatuta,  
2tik 6 urtera arteko umeentzako  
eta euren gurasoentzako egitas-  
moa. Plaza Handian.

## 3 zapatua

**Aisialdia**  
**11:00 Udazken festa**

Atxutxiamaiak antolatuta, Plaza  
Handian.

## 4 domeka

**Irteera**  
**9:30 Urbiara txangoa**

Altzolako Zubibai elkarteak  
antolatuta, Urbiara egingo dute  
irteera.

**Erakusketa**  
**19:00 Tibet**

Monje tibetarrek eginiko  
mandala ikusteko azken eguna.  
Kultur Etxeko erakusketa gelan.

## 5 astelehena

**Bilera informatiboa**  
**19:30 Baserritar Gazteen  
Martxa**

Akuilu taldeak deituta, Baserritar  
Gazteen Martxaren nondik  
norakoak azaltzeko bilera.  
Herritar guztientzako. Kultur  
Etxeko hitzaldi gelan.

# Gotzon Garateri herri-omenaldia

**Herri omenaldia**  
**Urriak 8, 18:45**

Udal txistulari bandak lagunduta, Gotzonen jaiotetxera joan-  
go dira, eta haren omenezko oroitarria bistaratuko dute.  
Omenaldiak Musika Eskolan izango du segida.

**Erakusketa eta kantu kalejira**  
**Urriak 9, 19:00**

Gotzonen lanen erakusketa inauguratuko dute Kultur Etxean.  
Hilaren 23ra arte egongo da ikusgai, 19:00etatik 21:00etara.  
(Jaiegunetan, 12:00-14:00). Ondoren, kantu kalejira egingo  
dute Madalaraino.

**Hitzaldi zikloa, 19:00etan**  
**Urriak 21**

'Eskerrik asko, Gotzon'. Gotzon Garate Bidegile  
Hizlaria: Miel Anjel Elustondo. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**Urriak 28**  
**Euskararen jatorria, zalantza artean igerian**  
Hizlaria: Juan Martin Elexpuru. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**Azaroak 4**  
**Euskaltasunaren norabideaz oldozpen batzuk**  
Hizlaria: Jon Sarasua. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**Azaroak 11**  
**Mende baten aldarría ikuskizuna.**  
Xabier Amuriza eta Jon Maia. Musika Eskolako auditorioan.

«Millenium: Los hombres que no  
amaban a las mujeres»

- 2, barixakua: 22:15
- 3, zapatua: 19:00/22:15
- 4, domeka: 19:00
- 5, astelehena: 21:30

Suedia-Danimarka, 2009. Zu-  
zendaria: Niels Arden Oplev.  
Aktoreak: Michael Nyqvist, No-  
omi Rapace.  
Iraupena: 145 min.

Polizia film honetan, enpresari  
aberats batek kazetari bati  
agintzen dio orain dela 40 urte  
desagertu zen ilobarekin zer  
gertatu zen ikertzeko.





## ERROSARIO KALEKO JAIK 2009

### 7 EGUAZTENA

*Errosarioko Ama*

*Birjinaren eguna*

13:00 Txupinazoa eta

Ama Birjinari lore eskaintza

18:00 Sokamuturra,

Arnoko zezentxoekin

19:00 Hildakoen omenez,

meza

20:00 Salbea

Ondoren, mokadutxo

(Kultur Etxeko sotoan)

### 8 EGUENA

17:30 Txokolate jana,

Baltasar elkarteak

eskainita

18:30 Zurrumuru

pailazoak

### 9 BARIXAKUA

17:30 Kiribilka egitasmoa

19:00 Mauxitxa

txarangaren kalejira,

buruhandiekin

19:30 Oliba hezurren

jaurtiketa txapelketa

21:15 Herri afaria, Kultur

Etxeko sotoan

### 10 ZAPATUA

12:00 Pilota partidak,

Lagunak taldeak

antolatuta.

13:00 Herri kirolak

### 11 DOMEKA

11:30 Meza, hildako

auzotarren omenez.

Bertan Haritz dantza

taldeak Gipuzkoako

ezpata dantza egingo du

Ondoren, Errosarioko

Ama Birjinaren

ezpatadantza, txistulariekin

eta Haritz dantza

taldekoekin.



# Zerikasi

## IKASTAROAK

### Yoga ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Kantsultatu

Hasiera data: 2009-10-01

Non: Elgoibarren

Izenematea: 943 744 415

### Altzariak zaharbertitzeko ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Gazteleraz

Hasiera data: 2009-10-02

Non: Elgoibarren

Izenematea: 678 840 451 / 615 764 337

### Margo artistiko ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Kantsultatu

Hasiera data: 2009-10-05

Non: Elgoibarren

Izena emateko: 943 740 844

### Internet E-administrazioa

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Kantsultatu

Hasiera data: 2009-10-05

Non: Elgoibarren

Izena emateko: 943 748 828

### Etxeko konponketak egiteko ikastaroa

Norentzat: 18 urteko gazteentzat

Hizkuntza: Ikasleen arabera

Hasiera data: 2009-10-19

Non: Elgoibarren

Izena emateko: Gazte Informazio Gunean (943 257 986)

Informazio eta eskaintza zabalagoa:  
[www.zerikasi.com](http://www.zerikasi.com) edo 943 74 82 71



«Up»

4, domeka: 16:30

Estatu Batuak, 2009. Zuzendaria: Pe-  
te Docter. Marrazki bizidunak. Iraupe-  
na 96 min.

78 urte ditu Carlek, eta bere ametsa  
beteko du: milaka puxika etxeari lotu

eta Hego Amerikara hegan egitea.  
Baina Russell, 9 urteko esploratzaile  
gaztea, harekin joango da. Abentura  
ugari biziko dituzte irudimenez beteta-  
ko bidaian.

herritik kanpo



## nagore arantzamendi

Abuztuan joan zen Nagore Arantzamendi Txinara, eta hamar aste egingo ditu bertan. Tianjinen dago, Txinako iparraldean. Itsas portu garrantzitsua dauka hiriburuak, eta bederatzi milioi biztanle bizi dira bertan. Eskolako praktikak egitera joan da, eta hango enpresa batean dihardu lanean.

“Txinako bizimodua polita da, egunero harritzen nau zeozerk”

### Nolako da Txinako bizimodua?

Bizimodu polita da hamengoa. Oso gauza kurioesak ikusten dira, eta egunero zeozerk harritzen nau. Ikaragarria da klaseen arteko desberdintasuna. Gutxi batzuk aberatsak dira; eta beste guztiak, pobreak. Ez da existitzen tarteko mailarik.

### Zerk harritu zaitu gehien?

Trafikoak. Ikaragarria da nola gidatzen duten hemen. Hasieran, beldurra ematen zidan kalea zeharkatzeak, taxi batean joateak, edota bizikletan ibiltzeak... Poliki-poliki ohitu naiz, eta bizikletan txinatarrak bezala ibiltzen naiz, edozein lekutatik.

### Nolakoak dira txinatarrak?

Jendea, oro har, jatorra da. Laguntzeko prest daude beti, baina euren konfiantza lortzea eta mantentzea ez da erraza. Kontu handia eduki behar duzu esaten duzunarekin, autoritaterik eta errespeturik ez galtzeko.

### Lanean zaude horko enpresa batean. Nola egiten dute lan?

Beti pentsatu izan dugu txinatarrak lan asko egiten dutela, baina askorik ez dute egiten. Agian, ordu asko bai, baina edozein aitzaki ona da lanik ez egiteko. Nire ustez, erreminta-makinaren arloan, oraindik asko falta zaie gure mailara iristeko. Ni Txinako eta Espainiako gobernuen kooperazio batetik sortutako eskola batean nago. Formazioaz aparte, inguruko hainbat enpresentzat ere egiten dute lan, produkzio arloan.

### Nola moldatzen zara hizkuntzarekin?

Hizkuntzarekin ez naiz moldatzen, oso zaila da. Ilusioz etorri nintzen txineraz zerbait ikasteko, baina ez naiz *egun on* esateko gai ere! Ikasi ditudan hitzak oinarrizkoak dira: *kaixo, agur, eskerrik asko* eta beste zenbait hitz solte. Urteak behar dira txineraz ikasteko.

### Zer gustatu zaizu gehien? Eta gutxien?

Gehien, dudarik gabe, txinatarraren kultur-etxeak dira, hau da antzinako etxeak. Oso politak dira. Txinatarraren azokak ere bereziak dira: auzo behartsuetan daude, eta giro polita izaten da bertan. Gutxien, berriz, jatekoa gustatu zait. Eskerrak arrosa guk ogia bezala erabiltzen duten, bestela ez genuke askorik jango. Hala ere, mendebaleko jatetxe asko daude hemen, eta beti dago non aukeratu.

### Bizitzeko leku egokia iruditu zaizu Txina?

Bai. Ez dakit noiz, baina egunen batean berriz etorriko naiz. Ez litzaidake urte batzuk hemen gelditzea axola izango.

### Anekdotarik?

Txinan asko erabiltzen dira bizikletak. Tianjin hain hiriburu handia izanik, distantziak ere handiak dira. Guk, hamengo bizimoduan nolabait integratzeko, bizikletak erostea pentsatu genuen. Erosi genituen, eta aste bete pasa aurretik, bi bizikletak lapurtu zizkiguten. Orain, beste bizikleta bana erosita, bi giltzarrapo ipintzen dizkiegu bizikletei.



★ IDAZMAKINEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA

★ MULTIKOPISTAK

★ FOTOKOPIADORAK

★ ERLOJU INDUSTRIALAK

★ MARRAZKETA MATERIALA

★ INFORMATIKA

★ FAX

**MEKANOSA**

Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar



**URKIDI**  
AHOLKULARITZA

Antonio Urkidi  
Josefina Fernandez



Tel.: 943 74 18 91  
Faxa: 943 53 01 49  
Kalamua, 12



# OSASUN GIDA



## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

### *Kemen Belardenda*

#### **Beria!!! Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.**

(Pisu kontrola, "Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Naturopatia, Bach loreak, P.N.L, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak). Quantum scio (estres kontrola) tarot terapeutikoa eta familia konstelazioa (banaka)  
San Bartolome, 29  
Tel: 943 744 031  
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

### **Sanatana Dharma Yoga Elkarte**

Urasandi, 9  
Tel: 943 748 593 (Idoia) - 685 722 131  
Astearte eta ostegunetan:  
10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/  
18-19:30/20-21:30  
*Mendaro*  
Astelehen eta asteazkenetan:  
10-11:30/15-16:30  
Astearte eta ostegunetan:  
20:00-21:30

## FISIOTERAPIA

### **Ainhoa Fisioterapia**

Eragozpen fisikorik egongo balitz, etxez etxeko zerbitzua eskainiko litzateke.  
Tel.: 943 531 953  
669 565 745  
Goiz eta arratsalde .  
Jausoro, 6 behea

## OPTIKAK

### **Ikus optiko-optometrista**

San Bartolome, 10 - Tel: 943 743 734  
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00  
**Uzuri**

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)  
San Frantzisko, 21 - Tel: 943 740 359  
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## ORTOPEDIAK

### **Itziar Sarasketa**

San Frantzisko, 12 - Tel: 943 74 35 62  
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

## MASAJISTAK

### **Victoria Iraegi**

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea.) San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea) -Tel.: 943 740 770  
Astelehenetik Ostiralera : 8:00 / 14:00

## HORTZ KLINIKAK

### **Irale**

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)  
Tel: 943 743 679  
Zeharkalea, 8 behea (Ermua)  
Tel: 943 177 134  
[irale@irale.com](mailto:irale@irale.com)  
[www.irale.com](http://www.irale.com)

## **Leku eder**

Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre enparantza, 5 behea  
Tel: 943 530 053  
[lekueder@informed.es](mailto:lekueder@informed.es)

## **Beltia Arriola**

- Odontologia orokorra eta ortodontzia  
- Haurren Hortzagin programa  
- Panoramikak eta telerradiografiak  
Trenbide kalea 21, behea  
Tel: 943 531 869

## PODOLOGOAK

### **Oinberri**

Errosario kalea, 25  
Tel: 943 741 795  
Astelehenetik ostiralera:  
9:00-13:30  
15:00-19:30

## **Iñigo Arrillaga Yudego**

- Hanken afekzioen terapia.  
- Neurrira egindako plantilak.  
- Hanka diabetikoen zainketa.  
- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.  
San Frantzisko kalea, 20 behea  
Tel: 943 741 645  
Ordutegia:  
9:30-13:30  
15:30-19:30



# GOTZON

## AKORDUAN HARTUTA



### HERRI-OMENALDIA

Urriak 8, osteguna  
Foruen plazan, 18:45ean

Udal Txistulari Bandak lagunduta, Gotzonen jaiotetxera joango gara, eta, haren omenezko oroitarria bistaratu ondoren, Musika Eskolan omenduko dugu.

### GOTZONEN LANEN ERAKUSKETA ETA KANTU KALEJIRA

Inaugurazioa: Urriak 9, ostirala  
Kultur Etxean, 19:00etan

Ondoren, kantu kalejira izango da, Kultur Etxetik Madalaraino. Erakusketa urriaren 9tik 23ra izango da. Orduetgia: 19:00-21:00 (jaiegunetan 12:00-14:00).

### GOTZONI ESKAINITAKO GEHIGARRI BEREZIA BARRENEN, urriaren 16an

### HITZALDI-ZIKLOA

Urriak 21: "Eskerrik asko, Gotzon. Gotzon Garate, bidegile".  
Miel Anjel Elustondo.

Urriak 28: "Euskararen jatorria, zalantza artean igerian".  
Juan Martin Elexpuru.

Azaroak 4: "Euskaltasunaren norabideaz oldozpen batzuk".  
Jon Sarasua.

Azaroak 11: "Mende baten aldarria" ikuskizuna.  
Xabier Amuriza eta Jon Maia.

Antolatzaileak:

 ELGOIBARKO IZARRA  
KULTUR ELKARTEA



Elgoibarko  
Udala

Laguntzaileak:



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

Hitzaldiak Kultur Etxeko hitzaldi-gelan izango dira, arratsaldeko 19:00etan. "Mende baten aldarria" ikuskizuna, berriz, Musika Eskolako auditorioan izango da, ordu berean.